

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 5539

*EBAZPENA, 2025eko abenduaren 10ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazten baita Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoko Plangintzako zuzendariordearen lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa.*

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102.2.a) artikuluan eta Osalaneko zuzendari nagusiaren 2025eko aurriaren 13ko Ebazpenaren laugarren oinarrian xedatutakoarekin bat etorritz (ebazpen horren bidez, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoko Plangintzako zuzendariordearen lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia iragarri zen), honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Itxaso Paul Salvador izendatzea Plangintzako zuzendariorde (kodea: 512066; dotazioa: 1), Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Plangintza Zuzendariordetzan.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2025eko abenduaren 11tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta bi hilabeteko epean.

Barakaldo, 2025eko abenduaren 10a.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,  
MARÍA LOURDES ISCAR REINA.